2. Laguntza horiek 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean egiten diren ekintzei aplikatuko zaizkie, diruz lagun daitezkeen ekintzak badira.

2. oinarria.- Finantzaketa.

1. Oinarri hauetan arautzen diren diru-laguntzetarako 2022. urteko finantzaketa, 2022ko gastu-aurrekontuko 2417 47000 «Enplegua sustatzeko kontrataziorako diru-laguntza» partidaren kargura egingo da, 6.000,00 euroko zenbatekoan.

3. Ematen diren laguntzak aipatutako aurrekontu-aplikazioan erabilgarri dagoen kredituaren mugaraino aitortuko dira.

3. oinarria - Laguntzen onuradunak.

Oinarri arautzaile hauetan ezarritako laguntzen onuradun izan ahalko dira, Orkoien erroldatuta dauden eta gutxienez urtebeteko antzinasuna duten, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Enplegu Agentzietan izena emanda dauden langabeak kontratatzen dituzten enpresak, haien forma juridikoa edozein dela ere, eta oinarri hauetan ezartzen diren betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

4. oinarria - Onuradunen betekizunak.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzen enpresa onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

b) Arau-hauste oso larriak egiteagatik enplegu-programak aplikatzearen ondoriozko onurak eskuratzetik salbuetsita ez egotea, abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginean aurreikusitakoarekin bat etorritik.

c) Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako debekuetako batean ere ez egotea.

d) Aldi baterako edo iraupen jakineko kontratuaren bitartez kontratatu-ko dituzten langileak enplegu eskaintza baten bidez eskatzea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko enplegu agentzien bitartez.

5. oinarria - Bazteketak.

1. Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak ez zaizkie aplikatuko honako hauei:

a) Gizarteratzeko eta laneratzeko zentroak.





b) Estatuko Administrazio Orokorra eta Estatuko Administrazio Orokorren Antolamendu eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 611997 Legearen III. tituluaren eta hamargarren xedapen gehigarrian araututako erakundeak, administrazio autonomikoak eta toki-erakundeak eta haien organismo publikoak ere.

2. Honako hauek ez dira diru-laguntzen xede izanen:

a) Martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen Testu Bateginaren 2. artikuluan edo beste lege-xedapen batzuetan aurreikusitako lan-harreman bereziak.

b) Sozietate forma juridikoa duten entitate edo enpresetako enpresa- buruen edo enpresa kontrolatzen dutenen, zuzendaritzako karguak betetzen dituztenen edo administrazio organoetako kide direnen ezkontideei, aurrekoei, ondorengoei eta ezkontza edo odol bidezko bigarren mailara bitarteko beste ahaideei, baita azken horiekin egiten direnei ere, eragiten dieten kontratazioak.

Salbuespen hori ez da aplikatuko baldin eta enplegatzailea langile autonomia bada eta besteren konturako langile gisa hogeita hamar urte-tik beherako seme-alabak kontratatzen baditu, harekin bizi zein ez, edo soldatapekorik ez duen langile autonomia bada eta berrogeita bost urtetik beherako senide bat, harekin bizi ez dena edo bere kargura ez dagoena, kontratatzen badu.

c) Kontratazioaren aurreko hogeita lau hilabeteetan enpresa, enpresa-talde edo entitate berean kontratu mugagabe baten bidez zerbitzuak eman dituzten langileekin egiten diren kontratazioak, eta langileak aurretik lan-harremanak izan baditu onuren eskatzaileak oinordetzen dituen enpresekin, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6. oinarria.- Laguntzen metaketa, gehieneko zenbatekoa eta batera-ezintasuna.

Diru-laguntzak, bakarrik zein beste diru-laguntza batzuk metatuta, ez du inoiz gaindituko lansarien kostu osoaren %100, gehi enplegu emailearen konturako karga sozialak.

Hori dela eta, diru-laguntzarako eskabidearekin batera konpromiso hau aurkeztu behar da: diruz laguntzen den kontratuaren indarraldian muga hori inoiz gainditzen bada horren berri emanen dela.

7. oinarria - Diruz lagun daitezkeen kontratuak.

Diru-laguntza bildu ahal izateko, enpresaren plantilla osoa handitu beharko da, kontratazio berriaren dataren aitzineko 12 hilabeteen zegoenaren aldean; haren hasiera datak 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartekoa izan behar du.

a) Kontratu mugagabeak, aldizkako finakoak barne.

b) Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bategina onetsi zuen martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.1 artikulua a) eta b) ataletan ezarritako kontratuak, gutxienez ere 12 hilabete irausten dutenak, salbu eta b) atal horretako kontratuak, sektoreko hitzarmenak horretarako aukera ematen ez badu, orduan gutxienezko iraupena hitzarmen horretan ezartzen dena izanen baita; betiere, urtebete iraunen du gutxienez.

Plantilla osoa kontatzean ez dira kontuan hartuko bitarte baterako kontratua duten langileak.





c) Desgaitasuna dutenentzako enplegua sustatzeko aldi baterako kontratuak, Hazkundera eta Enplegua Hobetzeari buruzko abenduaren 29ko 43/2006 Legearen lehen xedapen gehigarrian arautzen direnak

d) Prestakuntzarako kontratuak, enpresek enplegua eskatzen duten langabeei egiten dizkietenak, gutxienez ere urtebete irauten badute eta Langileen Estatutuaren 11.2 a) artikulua ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

e) Enpresari elkarteek eta enpresek egiten dituzten praktiketako kontratuak, gutxienez ere sei hilabete irauten dutenak, enplegua eskatzen duten langabeekin, aipatu Estatutuaren 11.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

8. oinarria.- Laguntzen zenbatekoa.

1. Honako diru-laguntza hauek emanen dira, betiere lanaldia oso bada:

-3.000 euro, 7. oinarriaren a) idatz-zatian aurreikusitako kontratu bakoitzeko.

-1.800 euro, 7. oinarriaren b) idatz-zatian aurreikusitako kontratu bakoitzeko, gutxienez ere urtebete irauten badu.

-900 euro, 7. oinarriaren b) idatz-zatian aurreikusitako kontratu bakoitzeko, gutxienez ere 6 hilabete irauten badu.

Kontratu horiek mugagabe bilakatzen badira, diru-laguntza igoko da, 3.000 euro bitarte.

-850 euro, 7. oinarriaren c) idatz-zatian aurreikusitako kontratu bakoitzeko.

-500 euro, prestakuntzarako kontratu edo praktiketako kontratu bakoitzeko.

2. Lanaldi partzialeko kontratuetan, betiere lanaldi osoko langile konparagarri baten lanaldiaren %50 irauten badute gutxienez, eta aldizkako kontratu finkoetan, pizgarriak proportzionalki kalkulatu dira laneko benetako denboraren arabera.

3. Kontratazioak kasuan kasuko hitzarmen kolektiboek markaturiko jarraibideen arabera egingen dira.

9. oinarria. -Epea, instrukzioa, tramitazioa eta ebazpena.

1. Prozedura alde batek eskaturik hasiko da; hala, interesdunak Orkoien Udalera eskaera igorriko du eta entitate horretako erregistroan aurkeztuko da.

Halaber, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukzioa eta tramitazioa Udalaren Idazkaritzari dagozkio eta ebazpena, berriz, alkate udalburuari.

2. Eskaerak aurkezteko epea bi hilabetekoa izanen da, lan kontratua hasi edo kontratua mugagabe bihurtu eta biharamunetik hasita. Nolanahi ere, diru-laguntzak eskatzeko epea 2022ko abenduaren 31n bukatuko da.

Eskaera epez kanpo aurkeztuz gero ukatu egingen da diru-laguntza.

3. Deialdi honetako eskabideak eta eranskinak Orkoien Udalean daude eskura.





4. Eskabideak eredu normalizatuetan aurkeztu beharko dira, eskabide orriaren atzeko aldean agertzen diren agiriekin batera.

5. Orkoiengo Udalak aurkezten den eskaera behar bezala baloratu eta ebazteko behar dituen argibide osagarri guztiak eskatu ahalko ditu.

6. Orkoiengo Udaleko alkate udalburuak emanen du diru-laguntza eman ala ukatzeari buruzko ebazpena. Ebazpen hori gehienez ere hiru hilabetean eman eta jakinaraziko da, eskaera tramitatzeko udal erregistroan sartzan denetik hasita. Epe hori ebazpen espresik jakinarazi gabe bukatzen bada, ulertuko da aurkeztutako eskaera administrazioaren isiltasunaren bidez ezetsi dela.

Orkoiengo Udalak diru-laguntza eskatzeko funtsa den jarduketa egin dela egiaztatu ondoren, diru-laguntza eman eta ordainduko du.

Ebazpenak ez dio administrazio bideari amaiera emanen. Horregatik, haren kontra berraztertzeke errekurtsioa edo gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahalko da, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzenduta, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

10. oinarria. -Laguntza emateko prozedura.

Deialdi honetan ezarritako diru-laguntzak banakako ebaluazioaren araubideari jarraikiz tramitatuko dira, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean xedatzen denaren arabera.

11. oinarria. -Diru-laguntza emateko ebazpenaren aldaketa.

Diru-laguntzak emateko kontuan izan diren baldintzak aldatzen badira, edo Estatuko edo atzerriko beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batzuek ematen dituzten diru-laguntzak edo laguntzak batera lortzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

12. oinarria. - Onuradunaren betebeharrak.

1. Diru-laguntza jasotzen duen enpresa beharturik egonen da diruz lagundutako lan-kontratuen gutxieneko iraunaldia betetzera. Kontratu muga-gabeen kasuan, kontratu mugagabe berriak nahiz mugagabe bilakatuak, gutxieneko iraunaldi hori bi urtekoa izanen da, kontratu mugagabea egin edo mugagabe bihurtzen den egunetik hasita.

2. Diruz lagundutako kontratua duen langileren batek enpresa uzten badu, enpresak haren lekuan beste langile bat jarri beharko du hilabeteko epean, deialdi honetako baldintzak betez, eta horren berri eman beharko dio Orkoiengo Udalari, kontratu berria egiten duenetik hilabete iragan baino lehen. Enpresak ordezkorik jarri ez edo deialdi honetako baldintzak bete gabe ordezkatzan badu, diru-laguntzaren zati bat itzuli beharko du, diruz lagundutako kontratuen iraunaldia betetzeko geratzen zaion denboraren proportzioan. Salbuespena izanen da langileak enpresa uzten duenean bidegabetzat aitortu edo deklaraturako kaleratzeagatik, orduan emandako diru-laguntza osorik itzuli beharko baita.

3. Diruz lagundutako kontratuak irauten duen bitartean, enpresak mantendu beharko du, kontratazio berriak ekarri duen plantillaren handitzea eta langileen kopurua (finkoak eta behin-behinekoak); hau ez betetzeak laguntzaren baliogabetzea ekarriko du.

13. oinarria. - Ordainketa.





8. oinarrian ezarritako diru-laguntza proportzionalki banatuko zaie enpresei (ordainketak hiru hilean behin eginen dira, aldi bakoitzaren mugaegunean eta kontratuaren iraupenaren arabera; kontratu mugagabeen kasuan, kalkulua 24 hilabeteren gainean eginen da: 8 hiruhilekoko ordainketa). Horretarako, kontratatutako langilearen izen zerrenda (TC2) aurkeztuko da, diru-laguntzaren xedeko langile/kontratazioa ageri den hilabete guztiena.

14. oinarria. - Diru-laguntzak itzultzea.

1. Diru-laguntza emateko ebazpena baliogabetzeko arrazoiak (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 37. artikuluan ageri direnak) berekin ekarriko dute jasotako zenbateko osoa edo zati bat itzuli beharra, baita berandutza interesak ordaintzea ere, diru-laguntzaren ordainketa egunetik itzuli beharra ezartzen den egunera bitarte.

2. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura arautuko dute Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen II. tituluan jasotako administrazio-prozeduren xedapen orokorrek eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak.

15. oinarria. - “De minimis” araubidea.

Laguntza hauek “de minimis” araubidearen pean daude, Europako Batzordeak abenduaren 15ean emandako 1998/2006 Erregelamenduan xedaturiko baldintzetan (erregelamendu hori Itunaren 87. eta 88. artikulua “de minimis” laguntzei aplikatzeko moduari buruzkoa da) eta Batzordearen 2009/C16/01 Komunikazioan ezarritako baldintzetan (komunikazio horretan Estatuko laguntzei aplikatzen ahal zaien Europar Batasuneko aldi baterako esparrua ezartzen da, gaur egungo krisi ekonomiko eta finantzarioaren garaian finantzaketa lortzen laguntzeko). Horien ondorioz, enpresa batek gehienez ere 30.000,00 euroko laguntza jaso dezake hiru urtean, lehen aldiz eman zitzaionetik.

16. oinarria. - Publizitatea.

Onuradunek jarduketak sustatu eta zabaltzeko egiten dituzten adieraz pen guztietan Orkoiengo Udalak diruz lagundu dituela agertu beharko da.

Orkoiengo Udalak, berriz, emandako diru-laguntzen zerrenda argitaratzen ahalko du bere web orrian.

17. oinarria. - Zehapen prozedura.

Dirua itzultzeko espedientearen tramitazioaren ondorioz sumatzen bada Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren IV. tituluan zehazten diren arau-hausteetako bat izan dela, lege berean ezarritako prozedurari jarraikiko zaio.

Orobat, enpresak aurkeztutako dokumentuetan funtsezko irregulartasuna dagoela antzematen baldin bada, emandako diru-laguntza ezeztatu eta kobratutako zenbatekoa itzultzeko eskatu ahalko da.

18. oinarria. - Aplikatu beharreko araudia.

Oinarri arautzaile hauetan xedaturik ez dagoen guztian, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko da.

19. oinarria. - Datu pertsonalen babesa.

Laguntza-eskaerarekin batera bildutako datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna Orkoiengo Udala da.

Tratamenduaren helburua laguntzak eta diru-laguntzak deialdiaren oinarrien arabera kudeatu ahal izatea da.





Legezko oinarria (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1. e) artikulua da (interes publikoaren alde egindako misio bat betetzea), Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen eta Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arabera.

Aurreikusitako datu-lagapenak Diru-laguntzei buruzko Lege honek eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak zehazten dituzte.

Datuak gordeko dira Artxiboei eta Dokumentuei buruzko apirilaren 4ko 12/2007 Foru Legearen eta ekainaren 14ko 51/2016 Foru Aginduaren arabera.

Titularrek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, eramateko, aurka egiteko eta mugatzeko eskubideak erabil ditzakete, legez aurreikusitako kasuetan.

Informazio gehiago: <https://www.orkoien.com> <https://orkoien.sedelectronica.es/> eta delegadoprotecciondatos@orkoien.com

Enpresa eskatzaileak aurreko guztiaren berri eman beharko die udalari diru-laguntza lortzeko datuak ematen dizkioten langileei.

ORKOIENGO UDALAK ENPLEGUA SUSTATZEKO KONTRATAZIORAKO 2022ean EMANEN DITUEN DIRU-LAGUNTZAK ESKATZEKO ORRIA

ENTITATE ESKATZAILEAREN DATUAK

IFZ	Izena edo sozietatearen izena		
EJSN (jarduera letraz)			EJSN zenbakia (.....)
Helbidea	Herria	Posta kodea	
Telefonoa	Helbide elektronikoa	Gizarte Segurantzako kotizazio kontua	

LEGEZKO ORDEZKARIAREN EDO AHALORDEAREN DATUAK.

Izen-deiturak	Telefonoa	Helbide elektronikoa
---------------	-----------	----------------------

ESKAERARI BURUZ ZERBAIT ARGITU BEHAR IZANEZ GERO, NOREKIN

Izen-deiturak	Telefonoa	Helbide elektronikoa
---------------	-----------	----------------------

ENPRESAREN PLANTILLAREN DATUAK.

	FINKOAK	EZ FINKOAK	BITARTEKOAK	GUZTIRA
Kontratua hasi aurreko sei hilabeteetako batez bestekoa				
Kontratua hastean				





kontratazio berria barne dela				
-------------------------------	--	--	--	--

KONTRATU MOTA.

Kodea	Izena	Lanaldiaren %	Kontratuaren erregistro zk.
Aplikatzeko ahal den hitzarmena		Eskaintza generikoaren erregistro zk.	

LANGILEAREN DATUAK.

Lehen deitura		Bigarren deitura			Izena
IFZ	Kontratuaren data	Adina	Sexua (G/E)	Herria	Posta Kodea
Enplegu agentziako inskripzio eguna		Enplegu agentzia		Oinarrizko errentaren har- tzailea? (Bai/Ez)	

Behean sinatzen duenak, ordezkaturako entitatearen izenean, eskaera aurkezten du Orkoien Udalari zuzendua, egintza horren ondorio guztiak bere gain hartuz, eta ziurtatzen du emandako datu guztiak egiazkoak direla.

....(e)n, 2022ko(a)ren (e)an

(Eskatzailearen sinadura)

Datuak babesteko oinarrizko informazioa. Tratamenduaren arduraduna: Orkoien Udalari. **Helburua:** laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea. **Eskubideak:** datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta beste eskubide batzuk, informazio zabalduan adierazten den bezala. **Informazio gehiago:** deialdiaren 19. oinarrian.

- 1.-Beste laguntza batzuen aitortpena (I. ERANSKINA).
- 2.-Deialdiaren 4. oinarriko b) eta c) ataletan onuradunei buruz ezarritako betebeharren gaineko aitortpena (II. ERANSKINA).
- 3.-Deialdiaren 5. oinarrian ezarritako bazterketen gaineko aitortpena (III. ERANSKINA).
- 4.-Eskatzaileak diru-laguntza kobratu aurretik zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eguneratuak dituelako egiaztagiria.
- 5.-Enpresa Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela eta horri dagokion ordainketa egina duela frogatzen duen ziurtagiria.
- 6.-Diru-laguntza nor kontratatzeagatik eskatu den, horrexen kontratuaren kopia.
- 7.-Langileen izenen zerrenda (TC-2), diru-laguntza eskatu aitzineko 6 hilabetekoa.
- 8.-Lan publikoaren eskaintza, Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agen tziek kudeatua.
- 9.-Kontratatuaren errolda agiria (Orkoien Udalak eskatu beharrekoa).
- 10.-Hala baldin bada, kontratatuaren desgaitasuna frogatzeko agiria.





ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

.....jaunak/andereak IFZaren titularra,

“.....” entitatearengisa.

ZIURTATZEN DUT:

Udalean aurkeztu dudako dokumentazio fotokopiatua bat datorrela jatorrizkoarekin. Datu pertsonalak babesteari buruzko araudiaren arabera (2016/679 EB Erregelamenduaren 13., 14. eta 6. artikulua), pertsona kontratatuei, (pertsona hauen datuak eskabidearekin batera eman ditut), deialdiaren 19. oinarrian (Datuen Babesa) adierazitako alderdi guztien berri eman didala, eta, bereziki, datuak Udalarri lagatzeko aukera ematen duen legezko oinarriaren berri.

Betebehar hori betetzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa dudala.

....(e)n, 2022ko(a)ren (e)an

(Eskatzailearen sinadura)

L. ERANSKINA

BESTELAKO LAGUNTZEI BURUZKO AITORPENA

Honez landa, entitateak xede bererako bestelako diru-laguntzarik eskatu edo eskuratu du edozein administrazio, erakunde publiko nahiz pribatutatik? Bai Ez

Erantzuna baiezkoa bada, adierazi beharko da zer laguntza mota den, zer erakundek emana, zenbatekoa eta data:

LAGUNTZA DATA	EMAN DUEN ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	ESKATUTAKO
_____	_____	_____	
_____	_____	_____	
_____	_____	_____	

Honez landa, entitateak azkeneko hiru urtean “de minimis” araubideko laguntzarik edo diru-laguntzarik eskatu edo eskuratu du, jarduera honetarako edo beste baterako? Bai Ez

Erantzuna baiezkoa bada, adierazi beharko da zer laguntza mota den, zer erakundek emana, zenbatekoa eta data:

LAGUNTZA DATA	EMAN DUEN ERAKUNDEA	ZENBATEKOA	ESKATUTAKO
_____	_____	_____	



Cód. Validación: 761427WMZDAHAZSXCN66DRS25A | Verificación: https://orkoiien.sedelectronica.es/ Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | P-ágina 23 de 27



.....jaunak/andereak IFZaren
titularra,

.....en izenean

ADIERAZTEN DU:

Egiazkoa eta osoa dela aitorten honetako informazioa.

Orobat, hitza ematen dut Udalari emanen diodala, 15 egun baino laburragoko epean eskabide honen egunetik aitzina, xede bererako aurkezten ditudan eskabide berrien berri, baita jarduera honetarako nahiz bestetarako "de minimis" araubidean aurkezten direnen berri ere.

Halaber, diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarka edo metaturik, soldataren kostua gehi enplegatzailearen bizkar dauden karga sozialak baino gehiago bada, entitateak hitza ematen du muga hori gainditu dela aditzera emanen duela, diruz lagundutako kontratu aldian edozein unetan gertatu ere.

.....(e)n, 2022koaren(e)an

(Sinadura)

II. ERANSKINA

DEIALDIAREN 4. OINARRIKO B) ETA C) ATALETAN EZARRITAKO ONURADUNEN BALDINTZEI BURUZKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andereak IFZaren
titularra,

.....en izenean

ADIERAZTEN DU egiazkoa eta osoa dela aitorten honetako informazioa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikulua ezartzen duenez, lege horretan araututako diru-laguntzen onuradun ezin izango dira izan bertan zerrendatutako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak. Artikulu horri dagokionez, adierazten dut ordezkatzeko dudako erakundea ez dagoela honako egoera hauetako batean ere:

- Epai irmoan ezarritako kondena onorioz dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko gaitasunaz gabeturik egotea.





- b. Borondatezko konkurtso baten deklarazioa eskatua izatea, ezein prozeduratan kaudimengabea deklaratu izatea, Konkurtsoan deklaratu egotea, salbu eta konkurtsoan hitzarmen batek eraginkortasuna hartu badu, kontu-hartze judizialaren menpe egotea eta, uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtsoei buruzko Legearen arabera, lehiaketa kalifikatzen duen epaian finkatutako ezgaitasunaldian egoteagatik ezgaitua egotea.
- c. Administrazioarekin egindako edozein kontratu behin betiko suntsitzeko bide emanda egotea, suntsipenaren kausaren errudun deklaratu badituzte.
- d. Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateetako administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak sartuta egotea, Gobernu kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko goi-kargudunen interes-gatazkak arautzen dituen apirilaren 10eko 5/1985 Legean, abenduaren 26ko 53/1984 Legean, Herri Administrazioen Zerbitzupeko Langileen Bateriaezintasunei buruzkoan, edo hautetsiei buruzko ekainaren 5eko Lege Orokorrean jasotako kasuren batean.
- e. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea, erregelamendu bidez zehazten den moduan.
- f. Egoitza fiskala erregelamenduz zerga-paradisua gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean izatea.
- g. Diru-laguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta ez izatea, erregelamendu bidez zehazten den moduan.
- h. Ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso izana, lege honen edo beste lege batzuen arabera diru-laguntzak lortzeko aukera galduz.
- i. Lege honen 11. artikuluan 3. paragrafoaren bigarren lerrokadan aurreikusitako elkarteak ezin izango dira onuradun izan, baldin eta elkarte horietako edozein partaide aurreko debekuren batean badago.
- j. Diru-laguntzak lortzeko debekuek eraginpean hartuko dituzte, halaber, eraentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, eraldaketaren, bat-egitearen edo ondorengotzaren ondorioz beste enpresa batzuen jarraipena edo eratorria direla pentsa daitekeen enpresak.

Era berean, adierazten dut ordezkatzeko dudak erakundea ez dela enplegu-programak aplikatzeko eratorritako onuretatik kanpo geratu arau-hauste oso larriak egiteagatik, Abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Lan-arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legearen Testu Bateginean aurreikusitakoarekin bat.

.....(e)n, 2022koaren(e)an

(Eskatzailearen sinadura)

Datuak babesteko oinarritzko informazioa. Tratamenduaren arduraduna: Orkoien Udalak. **Helburua:** laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea. **Eskubideak:** datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta beste eskubide batzuk, informazio zabalduan adierazten den bezala. **Informazio gehiago:** deialdiaren 19. oinarrian.





III ERANSKINA

DEIALDIAREN OINARRIETAN EZARRITAKO BAZTERKETEI BURUZKO ADIERAZPENA

.....jaunak/andereak IFZaren titularra,

.....en izenean

ADIERAZTEN DU egiazkoa eta osoa dela aitorten honetako informazioa.

1. Eskaera honen xedeko kontratazioa ez dago Langileen Estatutuari buruzko Legeak (martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako testu bategina) 2. artikuluan aurreikusten dituen lan harreman berezietan, ez eta legezko beste xedapen batzuetan aurreikusitakoetan ere.

2. Kontratazioak ez die eragiten sozietate forma juridikoa duten entitate edo enpresetako enpresaburuen edo enpresa kontrolatzen dutenen, zuzendaritzako karguak betetzen dituztenen edo administrazio organoetako kide direnen ezkontideei, aurrekoei, ondorengoei eta ezkontza edo odol bidezko bigarren mailara bitarteko beste ahaideei, ezta azken horiekin egiten direnei ere.

3. Kontratatu den langileak ez du, kontratazioaren aurreko hogeita lau hilabeteetan, zerbitzurik egin enpresa, enpresa-talde edo entitate berean, kontratu mugagabe baten bidez, eta ez du aitzinetik lan harremanik izan onuren eskatzailea oinordeko den enpresekin, Langileen Estatutuari buruzko Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren arabera.

.....(e)n, 2022koaren(e)an

(Eskatzailearen sinadura)

Datuak babesteko oinarrizko informazioa. Tratamenduaren arduraduna: Orkoien Udalak. Helburua: laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea. Eskubideak: datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta beste eskubide batzuk, informazio zabalduan adierazten den bezala. **Informazio gehiago**: deialdiaren 19. oinarrian.

IV ERANSKINA

ESKAERA, TRANSFERENTZIA BIDEZ ORDAINITZEKO

ESKATZAILEA	
Izen-deiturak (edo sozietatearen izena)	IFZ/IFK



AYUNTAMIENTO DE ORKOIEN
ORKOIENGO UDALA



Iturgain Plaza
31160 ORKOIEN (Nafarroa)
Tel. 948 32 11 11
Fax 948 32 11 1

Helbidea (kalea, plaza, etorbidea.)		Zenbakia, eskaile ra, solairua, atea	Telefonoa
Posta kodea	Herria	Probintzia	

BANKUKO KONTUA		
Kontuaren titularra (Bat egin behar du eskatzailearen izen-deiturekin edo sozietatearen izenarekin)		
Banketxearen kodea - - - -	Sukurtsalaren kodea - - - -	Kontrol digituak - -
Kontuaren zenbakia - - - - - - - - - -		

..... jauna, nire izenean edo honen ordezkari :(1).....
.....

.....(eskatzailearen edo ordezkatzaren duenaren izena), Orkoiengo Udaleko Diruzaintzari eskatzen diot nire alde egiten diren ordainketa-aginduak "bankuko kontua" izeneko atalean adierazitako kontu zenbakian ordaintzea.

.....(e)n, 2022koaren(e)an

(1) Adierazi zure izenean jarduten duzun edo ordezkatzaren duzun pertsona edo erakundea.

Datuak babesteko oinarrizko informazioa. Tratamenduaren arduraduna: Orkoiengo Udala. **Helburua:** laguntzak eta diru-laguntzak kudeatzea. **Eskubideak:** datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea eta beste eskubide batzuk, informazio zabalduan adierazten den bezala. **Informazio gehiago:** deialdiaren 19. oinarrian.

